



Carlos SANTIAGO | EUROPA PRESS

IKUSMIRA

AYOTZINAPAKO IKASLEAK, HAMAR URTE EGIAREN BILA

Irailaren 26an hamar urte beteko dira Ayotzinapako 43 ikasleen desagertpenetik. Mexikoko hiriburura zihoa-zen 1968ko Tlatelolcoko sarraskia gogoratzeko antolatutako manifestazioan parte hartzera. Hamar urte beranduago, asko dira oraindik erantzunik gabeko galderak; egia, justizia eta erreparazioa ez dira bete inondik inora. Andres Manuel Lopez Obrador presidenteak esaten du Armadak ikasleen hilketan eta desagertpenean ez zuela esku hartu. Hala berretsi zien berriro ere senideei pasa den astelehenean haiekin hitzartu ostean. Diziplinarteko Aditu Independenteen Taldeak iazko uztaillean argitara eman zuen bere azken txostena, seigarrena. Ikerketak bertan behera uztea eta Mexikotik joateko erabakia hartu zuen «informazioa sistematikoki ezkututzen» zitzaiela argudiatuz. Lopez Obradorrek «huts egin» diela nabarmendu zuten senideek. «Jakin badakigu Armada erruduna dela; presidenteak, ordea, militarren kontra frogarik ez dagoela dio», nabarmendu zuen Clemente Rodriguezek. Esperantzak, orain, Claudia Sheinbaumengan jarrita dituzte. Aina LERTXUNDI